

bio

2,1, Ehun meristematikoak: Meristemoek fotosintesia egiten ez duten zelula bizi txikiak dituzte osagai eta zelula hoeriek zatitu eta desberdinu editen dira, ehun helduak osatuko dituzten zelula motak sortzeko. **2,2, Ehun helduak:** Ehun helduak hainbat formatako zelulez osatuta daude. Zelula hoeriek ez dira zatitzen eta ehun meristematikoetatik eratorriak dira. Desberdinduta eta funtzio jakin bat egiteko espezializatuta daude. Silkapena: oinarritzkoak, eskeletikoak, eroaleak eta jariatzaileak. **Ehun babesleak:** Zelulek, elkarren ondo-ondoan daudenez kanpo estalki babesle bat osatzen dute, horrez gain, estalkia landareak kanpoaldearekin alikagaiak trukatzeari ahalbidetzen du eta trukea erregulatzen da. **EHUN EPIDERMIKOA:** Kloroplastorik gabeko zelula biziek eta handiek osatzen dute eta uretebete baino gutxiago duten hostoak, zurtoinak eta sustraiak estaltzen ditu. Landarearen aireko zatiak babesten ditu, ez lehertzeko, sustraiaren bidez ura eta gatz mineralak xurgatzen uzten dio landareari eta estomei esker, transpirazioa eta gasen trukea gertatzen da. **EHUN SUBEROSOA:** Zelula hilez osatuta dago. Ehun epidermikoaren ordean ageri da urtebete baino gehiagoko landare zatietan. **Oinarritzkoak:** Landarearen masaren zatirik handiena osatzen dute. Zelula bizi handiak dituzte. Zelula horiek bakuolo ugari izaten dituzte eta, batzuetan, kloroplasto ugari ere. Bertan landare nutrizioa gertatzen da. **Eskeletikoak:** Pareta lodiak zelulek osatzen dituzte eta egiturazko euskarria eta sendotasuna ematen dizkiete landareari. Bi mota: **Esklerenkima** --> Zelula pareta oso lodiak eta zura metakinak dituzten zelula hilek osatzen dute. Erresistentzia mekanikoa ematen die landarearen zati helduei. **Kolenkima** --> Sendotasuna eta malgutasuna ematen die landarearen zati gazteei. **Baskularrak:** Egitura konplexuak dira, hainbat motatako zelulak elkartuz osatuak. Hostoetan, nerbioetan eta sustrai nahiz zurtoinen erdiko zilindroan daude. Izerdi landugabea (ura eta gatz mineralak) garraiatzen dute sustraieetatik hostoetara eta landua (ura eta subs organikoak) hostoetatik landarearen gainerako zatietara. **XILEMA;** Izerdi landugabea sustraieetatik hostoetara garraiatzen du. **FLOEMA;** Izerdi landua zati fotosintetikoetatik landarearen gainerako zatietara garraiatzen du.